



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Basauriko Udala

**Deialdia eta oinarriak, hamaika (11) plaza txanda irekian oposizio bidez betetzeko; plazaren ezaugarriak: Administrazio Orokorreko Eskala, Administrari klasea, C1 taldea. Akatsen zuzentzea.**

Jarduneko Alkateak 3228/2024 Dekretua eman du, abuztuaren 27an. Testuak honako hau ezartzen du xedapen-zatian:

#### Lehenengoa

Maiatzaren 28ko 2171/2024 Alkatezaren Dekretuan (2463/2024 Alkatezaren Dekretuaren bidez zuzendu zen) atzemandako hurrengo akats materiala zuzentzea (2024ko ekainaren 28an 125 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Dekretu horren bidez, oposizio-sistemaren bidez hamaika (11) lanpostu betetzeko deialdia eta oinarri espezifikoak onartu ziren, honako eskala honetakoak: Administrazio Orokorra, administrari klasea, C1 taldea, 2023ko EPEari dagokio.

Bigarren oinarriko b) atalean,

— *Honela dio:*

«C1 azpitalderako tasaren zenbatekoa 14,00 euro da».

— *Hau esan behar du:*

«C1 azpitalderako tasaren zenbatekoa 14,50 euro da».

#### Bigarrena

Akatsa zuzentzeko ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Basaurin, 2024ko abuztuaren 28an.—Jarduneko Alkatea, María Larrinaga Artetxe